



ARAIZKO UDALA

Kale Nagusia, 4
31891 Arribe-Atallu
(Nafarroa)
IFZ.: P3102000A

ZERBITZU KONTRATUA: "Malloko kablearen behatokian erakusgarri izanen den edukia egitea eta edukien irisgarritasuna eta digitalizazioa"

Arribe-Atallun, 2023ko azaroaren 15ean.

Araizko Udaletxean, goizeko hamarrak laurden gutxi izanik, "Malloko kablearen behatokian erakusgarri izanen den edukia egitea eta edukien irisgarritasuna eta digitalizazioa" izeneko kontratazio espedientean aurkezturiko eskaintzak aztertzeke Kontratazio Mahaia eratu da.

Kontratazio Mahaia, honako kideek osatu dute:

Lehendakaria: Jose Manuel Zubillaga Muguerza

Bokalak:

- Igone Vazquez Angulo, Araizko Udaleko zinegotzia.
- Asier Arsuaga Ugalde, Araizko Udaleko zinegotzia.
- Alaitz Ibarguren Beloki, Arkitektoa.
- Joanes Aleman Olo, Araizko Udaleko idazkaria.

Alaitz Ibarguren Beloki ez da bertaratu arrazoi justifikatuengatik.

Kontratu honen xede diren lanak, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeari jarraiki, atalase komunitarioaren azpitik den prozedura irekiaren bidez esleitu dira.

Ondorengo eskaintzak aurkeztu dira epe eta dagokion moduan:

- Labrit Multimedia S.L.. 2023ko azaroaren 9an aurkeztua. Aurkezpen zenbakia: 113855.
- Heda Comunicación S.L. 2023ko azaroaren 13an aurkeztua. Aurkezpen zenbakia: 114241

Kontratazio mahaiak azaroaren 14an egindako bilkuran, dokumentazio administratiboari buruzko 1. gutunazala ireki eta ondokoak dira onaturiko lizitatzailleak:

- Labrit Multimedia SL.
- Heda Comunicación SL

Hau honela, lizitazioan onartua izan zen eskaintzaileek aurkezturiko bigarren gutunazala (Formula bidez zenbagarriak ez diren irizpideei buruzko dokumentazioa) ireki zen. Kontratazio mahaiak honako emaitzak hauek onartu zituen:

	Labrit Multimedia SL	Heda Comunicación SL
Proposamen teknikoa	47	46

**ARAIZKO UDALA**

Kale Nagusia, 4
31891 Arribe-Atallu
(Nafarroa)
IFZ.: P3102000A

Ekitaldi publikoan, onartuak izan diren lizitatzaleek aurkezturiko "formula bidez zenbagarriak diren irizpideei buruzko dokumentazioa" duen hirugarren gutunazalaren irekiera egin da eta honako puntuazioak eman dira:

	LABRIT MULTIMEDIA	HEDA COMUNICACIÓN SL
IRIZPIDE SOZIALA	Aurkezturiko eskaintza: 0% Puntuaketa: 0,00 puntu	Aurkezturiko eskaintza: 100% Puntuaketa: 10,00 puntu
BERME EPEA	Aurkezturiko eskaintza: 0,00 hilabete Puntuaketa: 0,00 puntu	Aurkezturiko eskaintza: 20,00 hilabete Puntuaketa: 20,00 puntu
GAUZATZEKO EPEA	Aurkezturiko eskaintza: 0,00 egun Puntuaketa: 0,00	Aurkezturiko eskaintza: 168,00 egun (42 egun gutxiagoan) Puntuaketa: 20,00

PUNTUAK OSOTARA:

	LABRIT MULTIMEDIA SL	HEDA COMUNICACIÓN SL
Formula bidez zenbagarriak ez diren irizpideak	47,00	46,00
Formula bidez zenbagarriak diren irizpideak	0,00	50,00
OSOTARA	47,00	96,00

Aurkezturiko proposamenen irakurketa bukatu ondoren, "Malloko kablearen behatokia erakusgarri izanen den edukia egitea eta edukien irisgarritasuna eta digitalizazioa" izeneko kontratuaren esleipenari buruz honakoa proposatu nahi dio Mahaiak kontratazio organoari:

Proposaturiko esleipenduna:

Enpresa: Heda Comunicación SL NIF: B31575590

Helbidea: Concejo de Ustarroz kalea, 11, trasera.

Lizitazio prezioa: 18.264,46 euro (BEZ kanpo)

Esleipen prezioa: 18.264,46 euro (BEZ kanpo)

Aurkezturiko dokumentazio guzia espedientera erantsirik geldituko da.



ARAIZKO UDALA

Kale Nagusia, 4
31891 Arribe-Atallu
(Nafarroa)
IFZ.: P3102000A

Honela bada, goizeko hamaikak direnenan lehendakariak amaitutzat eman du bilera.

Gertatua egiaztatzeko idazkaria naizen honek akta idatzi eta lehendakariak eta bokalek sinatu egin dute; fede ematen dut

Araitz, 2023ko azaroaren 15ean.

Jose Manuel Zubillaga Muguerza

Igone Vazquez Angulo

Asier Arsuaga Ugalde

Joanes Aleman Ollo

